



FAKTURAZIO ELEKTRONIKOKO ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

LEHENENGOA.- HELBURUA

Baldintza hauen helburua da EDPko (aurrerantzean EDPko) elektrizitatearen eta gas naturalaren enpresa hornitzaileek ematen duten Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuaren prestazioa (aurrerantzean Zerbitzua) arautzea, Zerbitzuan alta ematen duten bezeroen (aurrerantzean "Bezeroa"-ren edo "Erabiltzailea"-ren) alde.

Zerbitzua egiaztagiri elektronikoen bidez emango da, zeinaren bidez sinadura elektronikoa aurreratua sartuko baita Erabiltzaileei bidaliko zaizkien fakturretan; horrela, horien jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna bermatuko da.

Bezeroak Zerbitzuan alta ematen duenean, berariazko eta erabateko atxikipen argi eta garbia adierazten du Baldintza Orokor hauetako bakoitzarekiko, eta ondorioz, alta hori indarrean jartzen den datatik aurrera, Bezeroak eskuragarri izango ditu bere fakturak formatu digitalean Internet bidez, eta beraz, ez ditu gehiago paperean jasoko posta bidez, honako akordioetan ezartzen denaren arabera.

BIGARRENA.- FAKTURAZIO ELEKTRONIKOKO ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

1.- Zerbitzua posta elektronikoko mezuak bidaltzeko sistema baten bidez burutuko da; sistema horrek Bezeroei ohartaraziko die kontratatuta dituzten horniduren/zerbitzuen fakturak EDPren webguneko www.edpenergia.es (aurrerantzean webguneko) Bezeroaren Eremuan daudela eskuragarri.

Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuari esker, gainera, pantailan fakturaren eta horren xehetasunaren irudia ikus daiteke, inprimatu egin daiteke eta erabiltzailearen ordenagailu pertsonalean deskargatu.

Erabiltzaileak baldintza hauen lehen paragrafoan aipatzen den ohartarazpena ez jasotzeak, bai EDPri emandako posta elektronikoko helbideak akatsa duelako, bai beste edozer arrazoirengatik, ez du esan nahiko Fakturazio Elektronikoko Zerbitzua emateari utziko zaionik. Nolanahi ere, Erabiltzailea arduratu beharko da EDPri jakinarazteaz ohartarazpenak jaso nahi dituen posta elektronikoko helbidean edozer aldaketa izanez gero.

2.- Emandako hornidura edo zerbitzu ezberdinen bidez bidaltzen diren fakturak formatu digitalean kargatuko dira (PDF); ondorioz, Bezeroak fakturak sarean ikusten dituenean, faktura horiek bere etxera paperez bidaliz gero izango zuten formatu bera izango dute.

Faktura elektronikoa horrela eskuratu ahal izatearen oinarria sinadura elektronikoko sistema ba da; izan ere, sistema horren bidez jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna bermatu daitezke, apirilaren 10eko EHA/962/2007 AGINDUan ezartzen diren baldintzen arabera, zeinak fakturazio telematikoen eta fakturak elektronikoki gordetzearen gaineko zenbait xedapen garatzen baititu; era berean, xedapen horiek azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuan jasotzen dira, non fakturazio-obligazioak arautzen dituen erregelamendua onartzen den.

Fakturak Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalak emandako sinadura digitala izango dute, jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna bermatzeko.

3.- Zerbitzu horretan alta ematen duten Bezeroek ez dute inprimatutako faktura arrunta jasoko gehiago etxean; hala ere, paperezko kopia bat eskatu ahalko dute Bezeroaren Arreta Zentrorra deituz, EDPko Bulego Komertzialetara joanez edo webgunearen beraren bidez.



HIRUGARRENA.- FAKTURAZIO ELEKTRONIKOKO ZERBITZUAN ALTA EMATEA

Bezeroak borondatez eta doan eman ahalko du alta Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuan, eta une oro egin ahalko dio uko eta paperezko fakturazioko erregimen arruntera bueltatu ahalko da, Zerbitzuan alta emateko ezarritako baliabide beraren bidez EDPri komunikazio bat bidaliz.

Zerbitzu horretan alta emateko, EDPren webguneko www.edpenergia.es Bezeroaren Eremuaren bidez egingo da. Horretarako, eskatzen diren datuekin eta bere pasahitz pertsonalarekin eta sekretuarekin identifikatu beharko da Bezeroa, eta honako Baldintza Orokor hauek onartu beharko ditu.

LAUGARRENA.- EDP-REN OBLIGAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

EDPk honako konpromiso hauek hartzen ditu Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuan alta ematen duen bezeroarekin:

Posta elektronikoak Erabiltzaileak emandako helbidera bidaltzeko sistema bat martxan jartzea, jakinaraziz bere faktura webguneko Bezeroaren Eremuan dagoela eskuragarri, hark ikusi dezan, eta dagokionean, deskargatu edo inprimatu dezan.

Dagokion faktura eskuragarri jartzea Bezeroarentzat webguneko Bezeroaren Eremuan, eta hori aurreko paragrafoan aipatzen den posta jasotzeari kasurik egin gabe.

Kontsulta horien segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzea, honako neurri hauek ezarriz:

Posta elektronikoz bidaltzen den ohartarazpen-mezuan ez da fakturaren gaineko inolako informaziorik agertuko, igorpen-data, faktura horri dagokion kontratu-zenbakia eta hornidura-puntuaren helbidea izan ezik. Erabiltzailea webguneko Bezeroaren Eremuan sartzen denean faktura ikusteko, identifikatzea eskatuko zaio IFZ eta pasahitza sartuz, zeinak bakarrak izango baitira Erabiltzaile bakoitzarentzat. Erabiltzaileak bere pasahitza aldatzeko aukera izango du une oro, webguneak ematen dion funtzionalitatearen beraren bidez.

BOSGARRENA.- ERABILTZAILEAREN OBLIGAZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Erabiltzaileak honako konpromiso hauek hartzen ditu Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuan alta ematen duenean:

EDPri jakinarazi beharko dio Bigarren Baldintzan aipatzen den eta ohartarazpenak jaso nahi dituen posta elektronikoko helbidean izan dezakeen edozer aldaketaren berri. Bezeroak konpromiso hori betetzen ez badu, EDPk ez du bere gain hartuko Bigarren Baldintzan aipatzen den mezua zuzen bidaltzearen ardura. Nolanahi ere, bermatu eta erantzun beharko du, Bezeroaren Eremuan alta emateko formularioaren bidez emandako datu pertsonalen gaineko zinezkotasuna, zuzentasuna, indarraldia eta egiazkotasuna.

Erabiltzailea indarrean dauden hainbat hornidura- edota zerbitzu-kontratuen titularra denean, Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuaren alta ezarriko da soilik Erabiltzaileak Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuan alta ematen duen unean aukeratzen dituen kontratuen gainean.

Erabiltzaileak Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuan alta eman ondoren hornidura- edota zerbitzu-kontratu berriak eginez gero EDPekin, azken horiei ere Fakturazio Elektronikoko zerbitzua ezarriko zaie; hala ere, horrek ez dio kalterik egingo Erabiltzaileak horietako edozein paperezko formatuko fakturaziora aldatzea eskatzeko duen aukerari.



Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuetik kanpo geratuko dira honako baldintza hauetako baten bat izan ditzaketen kontratuak: Hornidura bertan behera uzteko arrazoiren bat dutenak eta hori egiteko izapideak hasi direnean. Ordainketa egiteko obligazioa duena ezberdina denean kontratuaren titularraren aldean.

Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuetik kanpo uzteko egoerak konpondu ondoren, Bezeroak berriz ere eskatu ahalko du alta ematea.

SEIGARRENA.- DATUEN BABESA

6.1.- Izaera pertsonaleko datuak jasotzea eta horien tratamendua egitea

Zure datuen tratamendua egiteaz EDP Energía, S.A.U. eta EDP Comercializadora, S.A.U. arduratuko dira soilik, tratamenduaren eta eskatutako fakturazio elektronikokoaren kudeaketaren arduradun gisa, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (UE 2016/679) eta horren garapen-araudiak ezarritakoaren arabera.

Erabiltzaileak Fakturazio Elektronikoko Zerbitzuan alta emateko baimena ematen duela ulertuko da, webguneko Bezeroaren Eremuaren bidez baldintza orokor hauek onartzen dituela adierazten duen unetik aurrera. Une horretatik aurrera, Erabiltzaileak Baldintza Orokor hauek onartzen ditu eta horietara atxikitzen da.

6.2.- Sarbide-, zuzenketa-, aurkakotasun-, ezabaketa-, mugapen- eta eramangarritasun-eskubideak.

Bezeroak sarbide-, zuzenketa-, ezabapen-, aurkakotasun-, mugaketa- eta eramangarritasun-eskubideak gauzatu ditzake, legez ezarritako baldintzen arabera, Baser-eri idatziz jakinaraziz honako helbide honetan: Dirección de Asesoría Jurídica, Plaza de la Gesta, Nº 2, 33007 Oviedo, edo honako helbide elektronikoko honetara cclopd@edpenergia.es posta elektronikoko bat bidaliz datu pertsonalekin batera. Kasu bietan titularraren NANaren fotokopia bat erantsi beharko da. Era berean, eskubide horiek Bezeroaren Eremuaren bidez gauzatu ahalko ditu."

Gainera, EDPko datuen babeserako ordezkariarekin jar zaitezke harremanetan honako posta helbide honetan: Plaza del Fresno -antigua Plaza de la Gesta, 2 33007 Oviedo edo posta elektronikoko honetan dpd.es@edpenergia.es, baldin eta datuen babesarekin lotutako zure eskubideetakoren bat urratu dela ulertzen baduzu; edo hala badagokio, erreklamazio bat jar daiteke Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean, honako helbide honetan, Calle de Jorge Juan, 6, 28001 Madril.